

# GURE MARRAK

munduko kontakizunen ilustrazio tailerra



## GURE MARRAK

- > Hasiera-data: **2021eko urriaren 22a**
- > Amaiera-data: **2021eko azaroaren 27a**
- > Tokia: **Dinamoa Sormen Gunea, Azpeitia (Gipuzkoa)**
- > Ordutegia: **ostirala: 17:00-20:00 larunbata: 10:00-13:00**
- > Izaera: **Presentziala**
- > Ordu kopurua: **24 ordu**
- > Matrikula-prezioak: **Soldatadunek: 160€, Soldatagabeek: 80,00€**
- > Matrikula-epearen hasiera: **2021eko irailaren 23a**
- > Matrikula-epearen bukaera: **2020ko urriaren 20a**

+ Gure Mintzak proiektuko kideak bertan izango ditugu tailerraren lehen saioan euren jatorrizko herrialdeetako kontakizunak aurkezten (Senegal, Brasil, Galizia, Japonia, Txekia, Ginea Konakry, Nepal, Pakistan, Argentina, Aljeria, Bielorrusia, Kroazia).

+ Ilustratutako kontakizun bakoitzarekin liburuxka bat egin nahi dugu eta guztiekin bilduma bat osatu. Lanak imprimatuta nahiz formatu digitalean partekatuko dira.

Gure Mintzak proiektua jarri genuen martxan Dinamoan 2020an: "Gure inguruan hitz egiten diren hizkuntzen aniztasuna eta jatorri ezberdinetako herritarren aberastasun kulturala saretzeko egitasmoa". 12 lagun grabatu genituen orduan, eta bakoitzari bere kulturatik zerbait aukeratzeko eskatu genion. Oraingoan, lagun horiek ekarritako kontakizunak ilustratzeko tailerra antolatu dugu, tailerra bukatzean kontakizun ilustratu horiek argitara emateko asmoarekin.

## HELBURUAK

---

- > Ilustrazio teknika desberdinen bitartez idatziz jasotako kontakizuna irudietan ematea.
- > Gure artean bizi diren hizkuntzetako kontakizunak ezagutzea eta jorratzea.
- > Hitzien eta irudien arteko josturak eta orekak topatzea.
- > Irudien bidez kontatzeko tresna propioak garatzea.
- > Proiektu propio nahiz kolektiboak gauzatzea.

## DINAMIKA ETA METODOLOGIA

---

### Iraupena eta egutegia

- > 4 asteko iraupena:
  - 2021eko urriaren 22tik azaroaren 27ra (tartean lanarekin jarraitzeko bi aste libre).
- > Ostiralero: 17:00etatik 20:00etara.
- > Larunbatero: 10:00etatik 13:00etara
- \* Parte hartzaileek, tailerreko orduetatik aparte, lan egiteko aukera izango dute Dinamoan.

### Egitura

- > Tailerra **Maite Mutuberria** eta **Leire Bilbaok** eskainiko dute.
- > 12 bat laguneko taldea.
- > Eduki hauek landuko dira bost hilabetez zehar:
  - Munduko kontakizun desberdinak ezagutu Gure Mintzakeko kideen eskutik.
  - Ilustrazio teknika desberdinen eredu eta erreferentzia anitzak ezagutzea.
  - Nork bere iruditeria sortu eta ilustraziora eramatea.
  - Kontakizuna osatzen eta borobiltzen ikastea.

## NORI ZUZENDUA

---

- > 16 urtetik gorakoei.
- > Besteenetik entzun eta nork bere irudimenetik pasata zerbait kontatzeko duenari.
- > Ilustrazioaren munduan proiektu aberasgarri bat garatu nahi duenari.
- > Sormenean irudien bitartez murgiltzen ausartzen denari.

## IZEN EMATEA


---

- > Epea: irailaren 22tik urriaren 20ra.
- > Izen emate orria: <https://forms.gle/8NmJ7dNPZ2YXEJiT9>
- > Zalantzak argitzeko, harremanetarako: idatzi [dinamoa@dinamoa.eus](mailto:dinamoa@dinamoa.eus) helbidera edo deitu 635 738 760 telefonora.

## JAKINGARRIAK

---

**Kokapena.** Dinamoa sormen guneko Irudiaren Eremuan du habia Hitzaren Eskolak, Azpeitiko kultur dinamika oparoaren baitan.



**DINAMOA**  
SORMEN GUNEA

[www.dinamoa.eus](http://www.dinamoa.eus)  
[dinamoa@dinamoa.eus](mailto:dinamoa@dinamoa.eus)



Antolatzailea:

**Azpeitiko**  
**Kultur**  
**Mahaia**

**Kulturaz**  
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

 **azpeitiko**dala  
denon artean

Laguntzaileak:

